



Jaialdi koloretsu eta alaia Udako Txokoetan.- Sendagile, baseritar, lorezain, subiltzaile, kazetari, sukaldari... lanbide ezberdinak izan ziren ostira-lean Manuel Lekuona Kultur-etxean. Udako Txokoetako jaialdia koloretsua eta erritimoz betea izan zen. Lasarte-Oria eta Zubietako Udako Txokoetako txikiak guraso eta senideei aste hauetan ikasitako dantzak eskaini zizkieten. Banaka banaka taldeak Txokoetan prestatutako jantzi eta osagarriekin oholtzara igo ziren eta dantzarako duten abilezia ikusi ahal izan zen. Zappiko lora, Tiritatxo, Panpoxa furgoneta ... hainbat izan ziren haurrek dantzatutako doinuak. Gurasoek adi jarraitu zituzten haien umeen ekintzak eta bideo eta argazki ugari ateratu zituzten emanaldian zehar. Udako Txokoetako begiraleek ere parte hartu zuten honetan. Joxepa behiaren doinuarekin koreografia bat eskaini zuten eta guraso eta haurren algarak entzun ahal izan ziren aretoan. Hala ere, jaialdi honek ez die amaiera ematen Udako Txokoetako oraindik milaka abentura, iteera eta jolas dituzte herriko gazteok.

3 POLITIKA

Zaballos PSE-EEren alkate-hautagai

Lasarte-Oriako PSE-EEko zinegotziak asteazkenean alkategai izateko bere hautagaizta aurkeztu zuen. Alderdiko edozein afiliatuk aurkeztu dezake bere hautagaizta. Hautagaizta bat baino gehiago egonez gero, uda ostean, proiektu eta zerrendak osatu beharko lituzkete hautagaiek eta herriko zuzendaritzaren esku geratuko lituzkete erabakia.

4 KULTURA

Zinea eta antzerkia asteburuan, eguraldi txarraren gainetik

Udarako giroa petrala izaten ari bada ere, herriko kultur programazioa beterik dago. Ostegunean "Futbolin" filma eman zuten eta ostiralean berri, "Gozo, gozo, gozoa" antzerkia eskaini zuen Salitre teatroak Okendon. Sabur taldearen larunbateko kontzertua bertan behera geratu zen.



Uztaileen zehar TXINTXARRI aldizkaria astelehenean bakarrik argitaratuko dugu. Herriko informazio guztia txintxarri.info orrialdean

Bideo Lagunak
Tien 21
 Etxebetresna elektrokoetan adituak

DENA ORDAINDU

- 6 hilabetetan interesik gabe
- 12 hilabetetan interesik gabe
- 21 hilabetetan (UTB %2,23)

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odoikia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etzeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateia

BERTAKO FABRIKAZIOA
 Loidi Barren kalea 3 · 20160 Lasarte-Oria
 Tel: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Zorion agurrak



Oihane
Zorionak bhotza, zure seigarren urtebetetzeari!! Muxu handi handi bat denon partetik!



Oier
Zorionak ospeldun!!! zure 7. urtebetetzeari Muxu potxolo bat Nora, aita eta amaren partetik.



Mayi
Zorionak Mayi familieren partez!! Asko malte zaitugu!! Ta ondo pasa oporretan!!



Erika
Zorionak!!! Zure 7. urtebetetzeari. Muxu handi bat zure familieren partetik. Ondo pasa!



Hodei eta Gari
Zorionak bikote zuen lehenengo urtebetetzeari!



Enara
Zorionak maitia 9 muxu potxolo familieren partetik eta ondo pasa zure egunean.



Aitana
"Poza zoratzen gatz... maitasun loreak zuretzako elkarzera". Zorionak txapeluna!



Alba
Zorionak Alba! Ze azkar hazi zaren. 6 urte dituzu! Asko maite zaitugu, bixxo!



Alex
Zorionak 7. urtebetetzeari. Muxu handi bat zure familia osoaren partetik.



Asier eta Nora
Zorionak bikote, abuztuak I i lean sekulakoa ospatuko dugu.



Izar eta Malen
Zorionak marisorginak! Ondo pasa! Muxu pila pila bat familieren partetik!



Eneko
Zorionak 7 muxu potxolo potxolo aitaxo, amaxo eta Marenen partetik. Maite zaitugu. Asko maite zaitugu.



Larraitz
Besarrik! Ta muxuak zure urteak ospatzeko. Maite zaitugu!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Garajea saltzen da erdialdean, Zapategi kalea. 14 metro karratu. 22.000 euro. Telf: 607 491 663, Arizt.

Salerosteketa

• Motoa Salgai Honda CBF 600S Urtea 2004 Prezioa: 3.200 euro. 630032779

Lan-eskaria

• Ingles, frantses eta latin klaseak ematen diren persona bat eskaintzen da. 656741592

• Unibertsitatean ikasten ari den gaztea ingeles, euskara, frantses edo eskola-laguntza klaseak emateko prest. Ekonomikoa. 600 766 068, Jokin.
• Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Harremanetarako 677 356 413.
• Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. 943 404 015 / 606 661 048.

• Interna edo externa moduan garbiketa edota zaintza lanak egiteko emakumea prest. 639 412 233.
• Emakume arduratsua eta langilea mota guztietaiko lanak egiteko prest. Paperekin, Azucena 669931026
• Emakume eskaintzen da interna moduan edo orduka arratsalde ezteko lanak, garbiketa, platerak garbitu edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperrak dauka. Harremanetarako, 619 803 199.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

• Christian Touriño Osa, uztaillak 15ean.
• Diana eta Maribel García Arriba, uztaillaren 12an.
• Jare Quintana Irazortza, uztaillak 9an.

Heriotzak

• Higino Villar Diaz, uztaillaren 10an, 76 urte zituela.
• Alfonso Prieto Paniagua, uztaillaren 8an, 78 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Astelehena, 21	Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteartea, 22	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Asteazkena, 23	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 24	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Ostirala, 25	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Larunbata, 26	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 27	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Atxepuru, Laxunbe Berri 11,
Hernani, Tel.: 943 336 077



Santa Ana azokaren baitan herri kirolak 2002.urtean.

Santa Ana jaiak

Urtero garai honetan Santa Ana jaiak jatorriari erreparatzen diogu. Ez dago guztiz argi noiztik datorriekin lasarte-rreri Santa Ana eta San Joakinen omenekoz jaiak ospatzearena. Hala ere, atzo bizi ahal izan zen azoka. 30 urte bete zituen Sendoki elkarteak antolatzen duen Santa Ana artisau azokak. Honek plaza ezberdinak ezagutu ditu urte hauetan guztietan eta Okendo gune nagusi izan den aren, hau ere asko aldatu denez, argazkian 2002. urtean Santa Ana azoka daukazu. Sendokiren hitzetan, urte hauetan guztietan Lasarte-Oriara artisau onak ekartzeko ahalgina egin da.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Txatun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
C-20407557
Legeko gordailua:
SSS13/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7800

txinbarri

Eredakzioa:
Nerea Ezpigne, Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txinbarri@txinbarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Aritzeta Artola
publizitatea@itakun.com
administrazioa@itakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maiti Arna, Asier Odrizola, Jose M. Hernandez, Jexux Artze, Pako Aizpirtate, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amador

POLITIKA

Zaballosek alkategai izan nahi du

Herriko PSE-EEko afiliatuak alkatzetara aurkeztu daitezke

Jesus Zaballosek agerraldia egin zuen asteazkenean herriko PSE-EEren alkategaia izateko asmoa jakitera emateko. Hautaigaitza herriko edozein afiliatu aurkeztu dezakea aipatu zuen eta ostean hautagaien artean, proiektu eta zerrendak hautatu direla. Uda ondoren jakingo da herrian beste norbaitek izena ematen duen eta hala balitz, herriko zuzendaritzak hautatu luke proiektu onena.



Jesus Zaballosek Froilan Elsep alderdiaren egoitzan egin zuen agerraldia.

TXINTXARRI

Jesus Zaballos PSE-EEko zinegotziak datorren urteko udal hauteskunderetan alkategai izateko aurkeztuko dela jakitera eman zuen asteazkenean egindako agerraldian.

Egun parlamentari lanetan aritzen da Jesus Zaballos udaleko zinegotzi karguaren utzartuz, lukeke ateratzekotan hau utziko lukeela adierazi nahi izan zuen, izan ere herriko edozein afiliatu aurkeztu daiteke alkategai izateko. Aurkezten direnen artean bat hautatu beharko luke herriko alderdiaren zuzendaritzak "bakoitzaren proiektua

eta horregatik parlamentari izateari utziko nioke".

Hautagaizak aurkeztu

Hala ere, bere hautagaizak aurkezteko asmoa soilik adierazi nahi izan zuen, izan ere herriko edozein afiliatu aurkeztu daiteke alkategai izateko.

Aurkezten direnen artean bat hautatu beharko luke herriko alderdiaren zuzendaritzak "bakoitzaren proiektua

eta zerrendak baloratu ostean".

Herritarren konfidantza berreskuratu behar dela aipatu zuen Zaballosek eta horretarako proiektua eta jende berria zerrendetan sartuko lukeela esan zuen. Alderdiaren programa osatzeko garaian ere, herritarrei galdetuta bat pasako zaie euren behar eta irizizkiak jakiteko asmoz. Hautagaizak iraila inguruan formalizatuko da.

HEZKUNTZA

Garaikoetxeako jangela gertuago

Garaikoetxeako jangela eskaera aspaldikoa da. Egun zerbitzu Michelingo kirol-gunean ematen da, Lasarte-Oriako Udalak Eusko Jaurlaritzari horretarako uzten dion erakinean. Ikastolatik jangelarako joan-etorria autobuzez egin behar da.

Jangelaren eskuduntza Eusko Jaurlaritzarena da, eta 2014-2015 jangela martxan izateko konpromisoa hartu du. Udalak, prozesua azartzeko eta aurrekontu osatzeko, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak ez du %100a osatzen, proiektu teknikoa eta jangela eraikitzeko beharrezko diren zimendu lanak beregain hartu ditu Aldundiaren diru-laguntzaz.

Jangela 2014-15 ikasturte amaierarako bukatuta egongo dela dio Hirigintza sailak. Jangela aparalekuan eraikiko da eta 150 bat ikasleri jaten emateko lekua izango du. Jangelaz gain, office txiki bat, komunak eta begiraleentzako aldagela izango du.

Jangelak egurrezko egitura izango du eta aurrez ekoitzia. Pieza guztiak eginak ekarri eta bertan muntatuko dira. Mota horretako eraikuntzak herrialde nordikoetan oso ohikoak direla aipatu du Udalak.

UDALA

Tasa eta zergen inguruko ekarpenak

Datorren urteko ordenantza fiskalak osatzeko lanean hasi da Udala eta aurreko herritarren parte-hartzea bultzatzeko asmatan tasa eta zergen inguruan ekarpenak egiteko epea zabaldu nahi izan du.

Horregatik, ekarpenak egin nahi dituzten herritarrek aukera izango dute hauek egiteko bihar arte, uztailak 22, erregistrazio instantzia bat utziaz edo udala@lasarte-oria.org helbide elektronikora mezu bat bidalita.

UDALA

Langabetuen kontratazioagatik laguntzak

Enplegua Sustatzeko toki ekintzetarako Lanbideren laguntza deialdiaren babesean, 2013/10/18ko EHAA-n argitaratua, Donostialdea Mendebaldea bailarako Udalek, hala nola, Lasarte-Oria, enplegua sustatzeko asmoz langabetuak kontratatzeko diru-laguntzak eskaintzen dituzte.

Tokiko enpresei zuzenduta daude eta interesa duten negozio orori, eskualdeko langabeak eta lan-eskatzailer moduan Lanbide Euskar Enplegu Zerbitzuan inskribatutakoak kontratatzeko.

2014ko aurrekontuan 112.500 euro aurreikusi dira diru-laguntzarako. Enpresek diru-laguntza honen onuradun izateko Lasarte-Oriako Lanbideko bulegoetan lan-eskaintza zehatza aurkeztu beharko dute eta Lanbidek proposaturiko izen gaien artean egin beharko dute hautapena.

Informazio gehiago Udalaren weban edo Dioni Avila teknikariaren hitz eginda 943 376 179 telefonoan edo emailaz d.avila@lasarte-oria.org.

DIRU-LAGUNTZAK

Beregale eta zuzendari titulua ateratu denentzat laguntzak

Udaleko Euskara Batzordeak 2014 urterako egin duen diru-laguntzen deialdiaren barruan, aisiako beregale eta zuzendari izateko eta unibertsitateetako euskarazko ikastarotarako diru-laguntzak onetsi ditu eta 1.350 euro eta 400 euroekin hornitu ditu, hurrenez hurren.

Aurreko irailaren 1a eta aurtengo abuztuaren 31 bitartean beregale ikastaroa hasi eta bukatu duen herritarrek, matrikularen %50 arteko (250 euro gehienez) beka jasotzeko aukera dute, baldin eta ikastaroa euskaraz eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izan baldin bada eta alderdi teorikoa gaititu baldin badu. Zuzendari ikastaroa egin dutenen artean, berriaz, baldintzak berdinak dira eta bekaren gehieneko kopurua 150 euroetako da. Dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesaak eskaera. Beranduenez urriaren 31n.

Unibertsitateko ikasleek, langabetuek edo erretiratuak direnek, berriaz, udan unibertsitate bateko uda-ikastaroa euskaraz eginez gero, matrikularen %50 arteko diru-laguntza jaso ahal izango dute. Bekak soilik matrikulako gastuak estaltiko ditu. Eskaera-oriak Udalaren weban daude edo euskara zerbitzura hurbilduta jaso ahal izango dira. Informazio gehiago 943 376 184 telefonoan.

Ttipi-Ttapa egitasmoa bide onetik

Udalak Osakidetzarekin, eta ETORBIZI fundazioarekin batera zahartzete aktibo eta osasungarriaren Ekintza Planaren barruan, Ttipi Ttapa ibilbide Osasungarriak proiektua martxan jartzeko bilera irekia egin zuen asteazkenean Biyak Bat elkartearen egoitzan.

Proiektuaren helburua, 60 urtetik gorako pertsonen astean behin oinez egiteko ordu, ordu eta erdiko ibilbide osasungarriak eskaintzea da. Dena herriko elkarteko boluntarioek koordinatuta izango litzateke.

Boluntarioek ez dute zertan adineko pertsonak izan behar eta egitekoa ibilbideak dinamizatzea eta paseotzen laguntza litzateke.

Udalaren ustetan ariketa fisikoa egiteaz gain, proiektua tresna bat da herriko elkarte, talde eta pertsonen elkarrekin denbora pasatzeko eta era berean etxetik aterata eta osa-



Biyak Bat egoitzan egin dituzte proiektuaren inguruko bilera.

guna zaindu behar duten 60 urtez gorako pertsonak animatzeko eta elkarlanean sozializatzea.

Bide onenak

Asteazkeneko bileran lau ibilbide ezberdin adostu zituzten herrian zehar egiteko modukoak. Ibilbide motzena 2km eta luzeena berriaz, 4,8km, bakoitzaren gaita-

sunen arabera egiteko modukoak beti era eta errazak. Irteera leku bezala Okendo plaza izango zela zehaztu zuten.

Bileran aktiboki parte hartzen ari diren herritarrek pozik azaldu ziren ekimenaren marxeekin eta gogoan izan zuten Endika Amilibia, zendu dirua, proiektu honetan parte hartzen ari baitzen herritara.

Antzerki eta zine proposamenak

Futbolin filma eta Gozo, gozo, gozoa obra izan dira ikusgai

Asteburu honetan ere lasarteoriarrek kulturaz kalean gozatzeko aukera izan dute. Ostegunean "Futbolin" filmak hainbat herritarren arreta erakarri zuen eta ostiralean berri, "Gozo, gozo, gozoa" antzerkia eskaini zuten. Kultur Kale Zikloaren barneko musika emanadirik ordea ezin izan zuten egin eguraldi iragarpen txarrak jarteko. Sabur taldeak gehazteke dagoen beste egun batean joko duela adierazi dute XpressionK eta Udaleko Gazteria sailak.

TXINTXARRI

Udarako giroa petral samarra izaten ari bada ere, Lasarte-Oria eguraldi txarrari aurpegi ona jartzen saiatzen ari da.

Horretarako, kaleko kultur ekintzetan parte hartu dute asteburuan ateri irau duen momentuan. Ostiral gauetan esaterako, Salitre teatroaren eskutik, pailazo hirukoteak ikusleen irribarra sortu zuten malabare eta umorezko esketak eginez Udaletxeko arkupe azpian.

Futbolin filma

Bestalde, ostegunean, Oken-do Zinema taldea eta Udaleko kultura sailaren eskutik, "Futbolin" filma ikusi ahal izan zen Okendo plazan.

Giro ederrean, guraso, gaztetxo eta haur ugari bildu zen plazan animaziozko filma ikustera. Adi-adi jarraitu zituzten Amadeo eta bere lagun berezien abenturak.

Kontzerturik ez Okendon

Hau guztiarekin gain, larunbatean, Kultur Kale Zikloaren barruan eskaini behar zen



Salitre teatroak Gozo, Gozo, Gozoa ikusizuna eskaini zuen larunbat gauetan Okendon.

kontzertua bertan behera geratu zuen eguraldi iragarpena zela eta.

XpressionK eta Gazteria departamentuak elkarlanean antolatutako ekintza honetan, Sabur taldeak kontzertua eskaini behar zuen Okendo plazan.

Antolaitzaileek jakitera eman dutenez, kontzertua Udara honetako beste asteburu bateko egunen batean eskainiko da, baina data gehazteke dago oraindik.



"Futbolin" filma ikusien hainbat haur, gazte eta guraso bildu ziren Okendo plazan.

Arsuagaenea parkea herritarrei zabalik

TXINTXARRI

U surbilgo Udalak Lasarte-Oriako Udal eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin batera Txiki-Erdin dagoen Arsuagaenea parkearen irekiera aurkeztu zuen ostegunean.

15 urte itxia egon ostean, Uribilgo Udalak balorea eman nahi izan dio parkeari eta guztiarentzat erabiltzari izatea nahi izan du.

Jende askok pentsatzen zuen hau leku pribatua zela. Baina kontutuan izanda herrietan guzti berde guzuen beharra ireki dugu," adierazi zuen Mixel Aizpuna Uribilgo alkateak.

Uribilgo Alkateak azaldu zuenez, horma handia kendu eta bi sarrera berri ireki dira eta hesiturak egurrezkoak jarri dira "parke batentzako egokiagoak".

Aizpuruak azpimarratu nahi izan zuenez, "hau ez parke urbana, bere jatorri honetan mantendu nahi izan da".

Gipuzkoako Foru Aldundiarri ere eskerak eman nahi izan zizkion Uribilgo Udalak eremu honi balore gehiago eman eta ingurune berria osatzen lagundu duelako. "Irrekiaregin ahal izatea ahalbideratu du. Aurreko erpeidun kotoxeak abiadura handia hartzen zuten eta Aldundiak hau egokitu du, baita espaloietan irisgarritasuna neurriak hartu ere".



Arsuagaenea parkean basoa eta zelaia izango dira erabiltzaileen eskura.

Lasarte-Oria onuradun

Nahiz eta Uribilgo lurraz izan Lasarte-Oria ondoan dagoenez, onuradunak lasarteoriarrek izango direla argi daukate. Horregatik aurkezpen honetan Lasarte-Oriako alkate eta hainbat zinegotzi ere izan ziren.

Lasarte-Oriako alkateak Pablo Barriok eskerak eman nahi izan zizkion Uribilgo Udalarri.

"Lasarte-Oriak falta duena berde guzuek dira eta hau leku pribilegiatua da. Jendeak ohitura du paseoko emateko eta buelta hiri ematerakoan beste aukera bat dute orain. Beraz, oso albiste pozgarria da guretzat", onartu zuen alkateak.

Balio botanikoa

Parkeak bi gune ezberdindu ditu, batetik zelaia eta bestetik basoa.

Ibon Goikoetxea Ingurumen zinegotziak azaldu zuenez, Zelaia erabilera anitza izan dezake eta basoa itzalaz gozatu ahaliko da.

Baso honetan gainera balio botanikoa duten bi elementu daude azpimarratu zuten, "60-80 urteko zedroak daude, alaseko zedroa eta zedro urdinak eta banbu basoa. Leku gutxiatan dago hau eta ikusgarria da". Hauetaz gain, lizarrak eta astigar ere aipatu zituen.

Hau dela eta, erabiltzaileei parkea zaindu dezaten eskatu die Uribilgo Udalak, "guztizona baita".



Aterpeko eta Udaleko Kultura sailako ordezkariak pintxoaren aurkezpenean.

Santa Ana egunean pintxo gozoa Aterpearen eskutik

TXINTXARRI

Santa Ana eguna ospatuko da larunbatean Lasarte-Orian. Ohiko ekintzez gain, aurtun Aterpea elkartearen eskutik Santa Ana eguneko pintxo berezia dasatzezko aukera izango dute herritarrek hainbat tabernetan. Ostiralean aurkeztu zuten pintxoak, bakailaoa pikillo piper saltsa eta piper berdeekin.

Boris Nogales Kultura zinegotziak azaldu zuenez, "Aterpea merkataritza elkartearen jarri ginen harremanetan haiek ere Santa Ana egunean parte hartu zezaten. Pintxo berezi bat egiteko proposatu

genien eta haiek pintxo hau aurkeztu zigten".

Jenni Garcia Aterpeko kideak aipatu zuenez, "Goiegi jatetxearekin jarri ginen harremanetan eta haien laguntzaz pintxo osatu genuen. Taberna bakoitzak bere erara egongo du".

Santa Ana eguneko pintxo berezia egun osoan zehar jan ahaliko da taberna hauetan: Txanpa, Arkupe, Guria, Tru-moi, Galiza, Buenetxea, Abend, Usoa eta Sancho taberna.

Aterpeko lagunek azpimarratu zuten, "hau ez da pintxo potea izango. Pintxoak 2 euro balioko ditu eta edaria aparte dago".

Aniztasunaren lanketa saritua

Udalak aniztasuna lantzeagatik Aldundiaren aitortza jaso du

Herrian 70 jatorri ezberdinetako jendea bizi da eta aniztasun hau lantzeko helburuarekin Udalak lan ildo zehatz gauzatu du. Lan hau eskutu eta horretan jarraitzeko bultzada emateko, Martin Garitano Ahaldu Nagusiarekin ekitaldia izan zen asteartean Udaltxean. Honetan parte hartu zuten aniztasuna lantzeko bilera eta ekimenetan egon diren herriko elkateetako kideak besteak beste.

TXINTXARRI

Kukuka Antzerki eta dantza eskola eta Semblante Andaluz elkarteetako dantzariak hasi zuten Udal batzar aretoan egin zen ekitaldia.

Euskal dantza eta flamenkoa uzartzeko dituen dantza eskaini zuten hauek Koreografia hau, Pirritx eta Porrotxan "Amona Maria Luisa" kantarentzat prestatu eta ekitaldira bertarutakoek eskaini zieten aniztasunaren adibide gisa.

Jarraian, Pablo Barrio Alkateak hitza hartu eta koloretako betaurerakoak jarri dituela aipatu zuen. Izan ere, Alkate izendatu zutenean, herrian hainbesteko aniztasuna zegoela ez zekielako onartu baitzuen, 70 herrialdeetako jendeak osatzen duen Lasarte-Oria.

"Aniztasunaren lanketa errealtateak erakutsi du eta harremanetan jarri ditu herriko komunitate ezberdinak".

Lan horretan sakondu eta jarraitzeko asmoa ere azpimarratu zuen.

Lekukoa

Harreman horien lekuko eman zuten "Anitzen sarea" egitasmoan parte hartzen duten elkarte batzuetako kideek, gutzira 35 elkarte dira.

Horrela, esperientzia zein aberatsa den aipatu zuten Kukukako Maider Oiartzabalak, Ttukuneko Tomas Arrizabalagak, Banaiz Bagarako Petra Elser, Sasoteko gurasoek, Semblante Andaluzeko kideek eta Porrotxek. Gehienek ahotan elkar ezagutu eta harremanerako zabalduko taritezaz gain, euskarak lanketa honetan duen bidea ere izan zen.



Flamenkoa eta euskal dantza uzartzutako dantza eskaini zuten Semblante eta Kukukako kideek ekitaldi hasieran.

Martin Garitano, Ahaldu Nagusiak herritarrek zoriondu zituen "aniztasuna eta integrazio errearen" alde egindako lan guztiagatik eta horrela jarraitzeko gonbita luzatu zien Udalari zein herriko elkarte eta eragileei.

Ekitaldiari amaiera eman zioten Xumela eta Banaiz Bagarako kideak bi abestirkin. Berarututako guztiak dantzan jartzea lortu zuten.



Xumela eta Banaiz Bagarako kideen kanteak dantzan jarri zituzten bertarututakoak.

Oriako Karmenak indarberritzeko urratsak

Karmengo Amaren eguna izan zen lehenengo asteazkenean eta gure herrian ohikoa den bezala oriatarrek bere zaindariaren eguna ederki ospatu zuten giro ezin hobean.

Auzoko jaia indartzeko ahalegina egin nahi izan dute oriatarrek eta urtero antolatzen diren ekintzez gain, hainbat emanaldi, kirola eta haurrentzako jokoak izan dira aurren Oriako auzoan.

Haurrentzako ekintzak

Goizean eman zieten hasiera Karmengo Amaren jaiei.

Trikitxia eta pandero doinuek auzotarrak esnatu eta jai giroa barretako deia egin zuten.

Haurrentzako buruhandiak egon ziren eta jarraian, haurrentzako jolasak izan ziren. Bertan auzoko ume eta gaztetxoek gain, Udako Txokoetako lagunak izan ziren gozatuak. Gainera, hauek bide batez, ur jolasak egin zituzten.

Meza nagusia

Ostean, ohikoa den moduan,

Karmengo Amaren ohorezko meza eskaini zen kaperaan.

Xabier Andonegi, Juan Luis Murua eta Ramon Uribetxeberria apaizek gidatu zuten eukaristia.

Honetan agurra dantzatu zitzaion Birjinarri eta Pilar Catalina sopranoak kanta bat eskaini zuten.

Meza bukatzean, hamaiketako egin zuten bertarututakoek Plazido Muxika plazan. Honetan ikusi ahal izan ziren Udaleko hainbat ordezkarri.

Kirola eta dantza

Arratsaldean beriz, lehenik pilota partidak izan ziren Oriako pilotalekuan. Haur eta gaztetxoek arteko hainbat norgehiagoka ikusi ahal izan zituzten bertara hurbildu zuten herritarrek.

17:00ak aldera, Karmengo Amaren historiari buruzko ikus-entzenezkoaren proiektzioa izan zen.

Jarraian, Oriako Sorgin Dantzaren doinuak entzun ziren auzoan. Sorgin Dantza zortzikoteak lehenik



Oriako Sorgin Dantza ere izan zen. Zortzikoteak Karmengo Amaren kaperaan ondoan eta Brunet-Enea parkean dantztatu zuten.

kaperaan ondoan dantztatu zuten. Ostean, kalejiran auzotar eta dantzariak Brunet-Enea parkera joan eta bertan ere eskaini zuten emanaldia.

Jai egunari amaiera emateko Ibai Berriak taldearen kontzertua izan zen Brunet-Enea parkean.

Ekintzaz betetako eguna izan zen beraz asteazkeneko Oriako auzoan eta ez da bakarra izango hilaibete amaieran Basaundin San Ignazio jaia ere ospatuko baitituzte.



Oriatarrek ez zuten hutsu egin eta Karmengo Amaren eguna ospatu zuten.

LABURRAK.

Nely Carla Alberto Mios de Bleges taldera

Nely Carla Alberto eskubalo jokalariak Mios de Bleges taldearekin bi denboralditarako kontratua sinatu du.

Fleury taldean bi denboraldi egin ostean, orain Bordele ondoan dagoen Mios herriko taldean jokatu du herriko jokalaria. Taldea emakumeen Liga gorenean ari da lehian.

Albertok Fleury taldearekin emakumeen Frantziako kopa irabazi zuen maiatzean eta hori dela eta, Mios de Bleges taldeak bere proiektu berria parte hartzea nahi du.

Era honetara, bere bosgarren denboraldia egingo du Frantziako Ligan. Le Havre taldean bi urtez izan zen eta Fleury-n egin ditu azken biak.

Bodegas ederki Pasai Donibaneko triatloiean

Lasarte-Oriako triatletek bi hitzordu izan zituzten uztailaren 12 eta 13ko asteburuan, batetik Pasai Donibaneko I. triatloia eta bestetik Gasteizko Iron Man-a.

Pasai Donibaneko proban 750 m. igerian, txirringan 20 km. eta korrika 5 km egin behar izan zituzten atletek eta Pili Bodegas herritarrak emakumeen beteterano mailako irabazle izan zen eta sailkapen nagusian laugarren.

Zigor Gallardo herritarrak berriz, Gasteizko Iron Manaren barruan egin zen Iron Man erdian parte hartu zuen. Lasarteoriatarrak 5 ordu, 36 minutu eta 20 segundo behar izan zituzten igeri 1,9 km., txirringan 94,3 km. eta korrika egiteko.

Txirringulariak ederki lehian

Bazpi txirringularitza eskolako gazteek lehengo asteburuan, uztailak 12 larunbatean, Zumaia eta Lazkao probetan izan ziren lehian eta lehen hamarren artean egotea lortu zuten gazteetako batzuk.

Lazkao IX. Esparru proban parte hartu zuten kadete mailako txirringulariak eta bi herritar izan ziren bertan. Inigo Altuna bosgarren postuan iritsi zen helmugara sprint ederra egin ostean. Luken Carbayadak, berriz, hogeita zazpigarren postuan amaitu zuen proba.

Jubenil mailan, Joxe Mari Korta Oroimeñezkoari egin behar izan zioten aurre Bazpi eskolako hiru gaztek. Jon Ander Unanuek bosgarren postua lortu zuen. Lasterketa guztian iheslari taldean egon zen eta azken kilometroetan atzean utzi zuten Bazpiko gaztea. Luis Sobejano 46. izan zen eta Arkaitz Murillo 56. postuan amaitu zuen proba.

PALA.

Santa Ana Pala txapelketako finala atzeratu da

Santa Ana pala txapelketako finala uztailaren 26an, Santa Ana egunean jokatu behar bazen ere, antolakuntzak uztailaren 30era atzeratu du lehiaketaren amaiera.

Uztailaren 30eko egitaraua aurretik zehaztutakoa izango da.

Hau da hirugarren eta laugarren postuen norgehiagoka 17:30ean jokatu da Loidi-Barren pilotalekuan.

Final handia berriz, arratsaldeko 18:30etik aurrera izango da.

Finalerdiak

Bestalde, egutegiarekin jarraituz, gaur eta bihar finalerdi interesgarriak jokatu dira.

Bederatzik bikote izan ziren lehiaketa hasi zutenak. Gogor borrokatu dira guztiak sailkapeneko lehen postuetan egon eta finalerdietan egoteko.

Baina lau bikote izan dira bakarrik txartela eskuratu dutenak Inigo Arluziaga eta Xenki Astiazaran, Xabier Etxezarreta eta Jon Peio Artexek, Bernatiz Odriozola eta Santi Martin eta Beñat Etxezarreta eta Xabier Artega bikoteak dira.

Era honetara, gaur 19:00etatik aurrera Arluziaga-Astiazaran eta Etxezarreta-Artexek bikoteen arteko partida ikusi ahaliko da. Bihar berriz, Etxezarreta-Artega eta Odriozola-Martin izango dira finalaurrekoan.

ATLETISMOA.

Atletek atsedenik ez

Herri eta mendiko lasterketetan lehiari ari dira herritarrak

Zumaiaiko Flysh traila, G2H, Ehun Milak edo Santamaña igoera dira uztailaren 11 eta 13a bitarteko asteburuan izan ziren lasterketetako batzuk. Mendi eta herri-kros proba hauek herritarrak izan ziren lehian, Lasarte-Oriako korrikalariek ez baitute atsedenik hartu oraindik.



G2Handiak proba egin zuten herri herritarrak proba hasi baino lehen.

TXINTXARRI

Lasterketa garaia amaitzean da eta Lasarte-Oriako korrikalariek ez dute aukerarik galdu nahi. Kros herriko edo mendiko ezberdinetan izan ziren lehian aurreko asteburuan eta esate berrak, Santamaña igoeran herritar bat izan zen podiumean, Raul Gomez.

Asteasuko proba honetan herritarrak 29 minutu eta 06 segundotan egin zituen proba osatzten duten zazpi kilometroak.

Ez zen lehen hamaren artean izan zen herritar bakarra izan, Jose Luis Delgado bosgarren iritsi baitzen helmugara, 30 minutu eta 35 segundo eginaz. Antonio Mazo herritarrak 32 minutu eta 47 segundo behar izan zituen.

G2H eta Ehun milak

Uztailaren 11tik 12ra, G2H eta

Ehun milak mendiko probak burutu ziren.

Goierriko 2 Handiak proban herri herritar izan ziren. Inaki Letamendiak 17 ordu 16 minutu eta 03 segundo behar izan zituen ibilbidea egiteko, Javier Olazagoitia 18:31:03 eta Toño Perezek 19:12:57.

Ehun Milak proban berriz, Peio Fadiquek izan zen lehian eta honek ezin izan zuen denbora barruan proba amaitu.

Zumaia Flysh Trail

Proba gogorrekini jarraituz, haubitza izan ziren ere uztailaren 23an Zumaia Flysh proban parte hartu zuten herritarrak.

Zumaia eta Deba artean dagoen Flysharen barruan bi ibilbide ezberdin egin ahal zituzten korrikalariek, 31 km. izan 15,2 km.

31 kilometroko proban Ivan Granado herritarrak 3:27:28 marka egin zuen.

15,2 km. proban aldez, hauek izan ziren herritarren denborak: Ivan Garcia, 1:23:34; Mikel Benito, 1:24:28; Mikel Arturi, 1:30:53; Sergio Mendez, 1:36:23; Javi Lopez, 1:41:17 eta Miguel Granado, 1:46:57.

Mendi lasterketekin jarraituz, III. Inaki Mendik lasterketa ere izan zen. Bertan Jose Riezu herritarrak 2:16:57 denboran egin zituen ibilbideko 21 kilometroak.

Espainiako txapelketa

Bestalde, LOKEko jubentzi mailako hainbat gazte Valladoliden ospatu den Espainiako txapelketan parte hartu dute asteburu honetan. Itoitz Rodriguez zilarra ekarri zuen 400m probatik 48:73 eginda.

IGERIKETA.

Ibarbururen Euskadiko errekorra

Buruntzaldea IKT-ko Inigo Ibarburu, Mikel Ensal, Naiara Lizaso eta Itsaso Tolosa Espainiako Open eta junior txapelketetan izan dira lehian Bartzelonan ostegunetik igandera. Espainia mailako onenen aurka borrokatu dute gazteek eta Inigo Ibarburuk esaterako 100 m. tximeleta probako Euskal Herriko errekorra egin zuen.

Ostegunean, Mikel Ensal, Inigo Ibarburu eta Naiara Lizasok 50 m. probako sailkapena izan zuten. Eta finaleko txartela lortu ez arren, Inigo Ibarburuk bere marka pertsonala hobetu zuen.

Hau ez zen Ibarburuk egun horretan egin behar izan zuen proba bakarra izan, 200 m. tximeletako sailkapenean ere izan baitzen. 97. urteko finale-



Buruntzaldea IKTko espedizioa Bartzelonan jokaturako Espainiakoa

rako sailkatu arren, honetan ez parte hartzea erabaki zuten hurrengo eguneko proba 100 m. tximeleta prestatzeko. Eta ederki etorri zitzaion atseden, ostiralean sailkapen proban Euskal Herriko marka hautsi baitzuten herriko gazteak. Gainera, arratsaldeko finalean ere izan zen bigarren postua eskuratu eta Euskal Herriko marka berriro hobetuz, 56:23. Gai-

rontzeko probetan, 50 libren 25'00 eta 11garren postua eta 200 tximeletan 12garrena eskuratu zituen. Iganadan 200 estilotan 11. izan zen 2'15'39 eginez eta 50 tximeletan 25'58 eginda Euskadiko errekor berria jarri zuen.

Bestalde, Mikel Ensal 50 librea 24'74 eta Naiara Lizasok 50 librea 29'36 eta 100 librea 1'03'51 egin zuten.

— Agenda —

Larunbata 26, egun osoa, Lasarte-Oriako erdigunea



Santa Anaren ohorez ohitura eta umorea

Lasarte-Oriako erdigunean Santa Ana eguna ospatuko da. Eguerdian, Santa Ana eta San Joakinen ohorezko meza ospatuko da Brigitarren komentuan. Ostean, Santa Ana karkabaren aurrean dantza egingo dute Erketz EDT-ko lagunek eta hamaiketakoia izangoda hurbiltzen den herritarrentzako. 22:30etatik aurrer beriz, Okendo plazan, urteroko gertakizunei errepaso umoretsua emango zaie Santa Ana eguneko parodian.

Erakusketak

JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Uztailen zehar

Patxi Fernandez-en margo erakusketak izango da ikusgai.

Zubieta

Jaiek

Osteguna 24

18:00etan, Jaien hasiera: Txupinazoa Dinbi Banda batukadaren laguntzaz eta argazki herriko erraldoia.

21:00etan, Herri Afaría eta ondoren, Itzartu taldearen dantzaldia.

Ostirala 25

10:30etan, Meza Nagusia. Ondoren, hamaiketakoia guziontzat eta soka-dantza.

17:30etan, haurren Joko Garbi erakustaldia. Jarraian, gazteen Errebotte partida.

19:00etan, Olinpiaden lehen proba.

Larunbata 26, oilasko biltze eguna

06:00etan, oilasko biltzaileen irteera, Uxue eta Ierni trikitilarien eskutik.

14:30etan, oilasko biltzaileen itziera.

16:00etan, ginkana.

22:00etan, Odolaren Mintzoa eta Skakeitan musika taldeek eskainitako kontzertuak.

Jarraian, Laiotz taldearekin erromeria.

Igandea 27, Jubilatuen eguna

12:00etan, Gaztetxoaren antzerkia.

14:00etan, Jubilatuen bazkaria.

16:00etan, Olinpiadak: Sukaldaritza proba.

22:00etan, Bertso-saioa: Beniat Gaztelumendi, Alaiá Martin, Aitor Sarriegi eta Uxue Alberdi. Gai jartzaila: Asier Azpiroz.

Lasarte-Oria

Musika

ZULO ARETOA

Larunbata 26, 18:00etan
Hip Hop Block Party! graffiti, hip-hop eta b-boying-az gozatzeko aukera aparta.
Larunbata 26, 23:55ean
Xolomo Gangastak-ek "We love the party!" saioa eskainiko du.

BASAUNDI PLAZA

Larunbata 02, 19:30ean
Aduña taldeak doinu zeltiar eta rock-a nahastean dituen abestiak eskainiko ditu. Kultur Kale Zikloaren barruko saioa.

Palestina askatu!

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Asteartea 22, 19:30etatik aurrera
Herri asanblada, afari herrikoia eta "Five broken cameras" filmaren emalndia izango dira.

San Inazio Jaiek

BASAUNDI BAILARA

Osteguna 31
09:00etan, martxa erregulatu Buruntz-Azpi Elkartearen eskutik
10:00etan, gaileper botatzea Buruntz-Azpi Elkartearen eskutik
11:30ean, San Inazio eguneko meza

nagusia Oriako Karmengo kaperan.

12:00etatik 13:00etara, haur jolasak.

12:30ean, Pote eta Toka Basaundi plazan.

Buruntz-Azpi Elkartearen eskutik.

14:00etan, Bazkari herrikoa Buruntz-Azpi

elkartean. Bazkario tikitak salgai elkartean.

16:00etatik 18:00etara, haur jolasak.

17:00etan, 3 x 3 saskibaloitxapelteta Oriako saskibaloitxapelteta.

Ostadar S.K.T.-ren laguntzarekin.

17:00etan, Tenis txapelketa Bitarteko

tenis pistetan. Ostadar S.K.T.-ren laguntzarekin.

18:30ean, haurrentzako tailerrak.

21:00etan, Ibai Berriak taldean eskutik

dantzaldia.

— Herritarren txokoa —

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenero bezala, uztailaren 28ean, odol ateratzeak izango dira. Beti bezala, Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era izango da hitzordua.

Anima zaitzete, odolara ordezkaezina da eta odol falta dago!

Ttirriki Ttarraka musika eskola

Ttirriki Ttarraka musika eskolako matrikulazio epea ireki da.

Musika eskola honetan parte hartu nahi duten herritarrek informazio eskuratu dezakete, asteazkenean, uztailaren 23an, 18:30etik aurrera Kolonin haurtzaindegian egingo den bileran.

Munteri-AEK zozketa

Munteri-AEK euskaltegiak jakin araztzen du, "asteburu pasa bi lagunentzat aukerako lekuan" zozketaren sariduna 002 zenbakia izan dela.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratu:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Adierazpen instituzionala

Lasarte-Oriako Udalak Gazako erasoak berehala gelditzea eskatzen du

Hiru gazte israeldarren desagertzen eta heriotza tragikoaren ondotik, palestinar biztanleriaren kontrako zigor kolektibo bat ari da burutzen, ehundaka lagunentzako atxiloteta, milaka etxeen miaketa, suntsituak izan ez direnena, eta ehundaka palestinar erailketa (haurrak barne), orduz ordu hasten doan heriotzaren balantze bat osatuz.

Eskalate militarrek gora egin du du azken orduotan, gaueko bonbardaketekin, mugan tanke eta soldaduen metaketarekin eta Gazatik Israelera jaurtitako misil eta suzirikien batera.

Israelek Gazaren kontra burututako erabateko erasoak, munduko zonalde populatuenetariko baten kontrako, proportzionaltasun, zuhurtzia eta borrokariaren eta zibilien arteko bereizketa printzipioak urratzen ditu, eta nazioarteko legeak dioen moduan guztiz arbuatu behar da. Ezer konpontzetik urrun erasoak lortuko duten bakarra egoera okertzea eta eskualdeko ezezagontasuna handitzea izango da, honez gain, gatazkare-

kin zerikusirik ez duten biktima ugari sortzen.

Horregatik Lasarte-Oriako Udalak bortizkeriaren eskalatez gelditzea urgentziazko deia egiten du, eta NBERen ebazpenetan oinarrituriko, elkarri- zketaren eta negoziazioaren bidezko gatazkarren konponbidearen beharra berresten dugu. Baita Giza Eskubideen errespetu osoa kasu guztietan ere.

Hainbat indar palestinarrek sustatutako batasun nazionaleko gobernu mehatxu gisa ulertu beharrean, Israel-ek ulertzen duen moduan, aukera eta norabide egokian emandako urrats gisa ulertu behar da, Palestinako herriaren ahotsu bateratutako edozein itenbide errazten duelako.

Nazio Batuek onartutako mugak dituen estatu palestinar bideragarri baten aitorza dakarren elkarriketa eta negoziazio prozesu inklusibo batek soilik, jar dezake konpontze bidean, sufrimenduz izugarria eta eskualdean etengabeke ezezagontasun eragin dituen gatazka hau.

1.-Lasarte-Oriako Udalak egoeraren jakitun Udaltxeko bakoian Palestinako bandera krespoi beltz batekin jarriko du azken hildakoen dolu ikur moduan.



Jendetza ibili da aurrera eta atzera produktuak ikusi eta erosten. Giro aparta izan zen atzo egun osoan zehar.

Eskulangintza plazan, XXX. edizioan

Cesar Bozalen aurtengo labana Hilario Arbelaitz Zuberoa jatetxeko sukaldariarentzat izan da

Sendoki Kultur Batzordeak XXX. Santa Ana Eskulangintza Azoka antolatu zuen atzo Okendo eta Antonio Mercero plaza-zen. Lasarte-Oriako Udaleko Kultur Sailak lagunduta, Euskal Herri osoko txakoetatik erortirako artisau eta eskulangileak bildu ziren herrian. Horietako 14 lasarteoriatarak izan ziren eta eguraldi ona lagun, gozatu eta zuten herritarrek han eta hemengo produktuak ikusi eta erosi.

TXINTXARRI

Azoka goizean goiz hasi zen, eta orduek aurrera egin ahala geroz eta jende gehiago bil-tzen joan zen Okendo eta Antonio Mercero plaza-zen banatuta zeuden 60 postuetan.

Bertan denetik aurkitu ahal izan zuten herritarrek: egurrezko tailak, txotxongi-loak, bitxiak, arropa, zera-mika... hori artisau produktuei dagokienez, baina elikadurak ere izan zuten tokirik igandean: pastelak, toloak, ukenduak, gaztak, goxokiak... Dena artisauak eurek eskue-

kin egindako lanak.

Aurtengo berrikuntza nagusia ehorziren topaketa izan da, Udaltxete azpiko arkupeetan jo eta su lanean aritu ziren 36 bolillera, Errenteria, Hernani, Irún eta Andoaindik etorriak. Lasarte-Oriakoak 21 izan ziren. Haurrek eskulan tailerrak ere izan zituzten Okendo plazan.

Aiztoa Arrebitzentzat

Urtero bezala, Cesar Bozal labangileak Euskal Herriko sukaldari ezagun bati aiztoa oparitu zion bere ibilbidean egindako lan guztiaren omal-naldi moduan.

Hilario Arbelaitzek jaso du aurtengoan saria eta bihotzez eskertu nahi izan die Bozali berari zein Sendokiri emandako tratu eta errekonozimendua.

"Produktu on bat gabe ez dago plater on bat sukaldatzerik, eta erreminta on bat gabe ezin da ezer prestatu, beraz, zorionak artisau guztiei egiten duzun lanagatik eta segi aurrera", adierazi zuen Arbelaitzek.

Pablo Barrio alkatea bere aldetik artisauen "lana, maitasuna eta gogoan" goratu zituen eta zaindu beharreko alortzat jo zuen artisauena.

Sendoki Batzordeak azken eskerrak eman nahi izan zizkien 30. urteurrena betetzen duten honetan antolakuntza lanetan aritu izan diren guztiei eta bereziki gogoan izan zituzten bidean galdu dituzten kide eta lagunak.



Artisau lasarteoriatarrek ere saltzen jardun zuten jarri zituzten postuetan.



Barrio alkatea, Nogales zinegotzia, Cesar Bozal labangilea, Hilario Arbelaitz sukaldaria eta Sendokiko Salsamendi eta Ormazabal.

Santa Ana XXX. Eskulangintza azokako argazki guztiak txintxarri.info atarian.